

Galdetegi hau harrera-familia espezializatuekin esku hartzen duten familia-harrerako zerbitzuko teknikariei zuzenduta dago, bai eta kasuan esku hartzen duten beste pertsona harreragileei edota profesionalei ere. Harreragileen gaitasun teknikoan bilakaera baloratzeko da helburua, harreraren hartutako haurra izan eta gutxienez sei hilabete igaro ondoren. Baloratu beharreko gaitasun teknikoak garai hartako izangaiekin egin zen gaitasun teknikoan elkarriketan ezarri ziren berberak dira.

Hau da, 360 graduko ebaluazioaren ideiarekin, teknikariei zein harreragileei gaitasunen bilakaera baloratzeko eskatzen zaie, bai eta hurrengo aldian lehenetsi beharrekoak zehazteko ere. Honela, harreragileen gaitasun teknikoak etengabe monitorizatu eta ebaluatu daitezke harreraren zehar.

A. OINARRIZKO DATUAK

Harrera-familia espezializatua:	Balorazio-data:
Evaluatzailearen izen-abizenak:	Generoa:
Antzintasuna zerbitzuan eta PAFeko esku-hartzean:	Profila: ☐ TRADE hartzailea ☐ PAFeko profesionala ☐ SAFA

B. ESKU-HARTZE PLANA GARATZEKO GAITASUNAK

1. Zure ustez, zein mailatakoa da harreragileak esku-hartze programaren oinarri diren eredu teorikoen inguruan duen ezagutza eta aplikazioa? (Eredu sistemikoa, atxikimendua, erresilientzia eta traumaren teoria).

Gaitasun teknikoen bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)

Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea
1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia

1.1. Eredu teorikoen ezagutza

1.2. Eredu teorikoen ulermena eta aplikazioa kasu honetan

2. Zein da harreragileak bere kasua diagnostikatzeko, aztertze eta teknikoki justifikatzeko duen gaitasun-maila?

Gaitasun teknikoen bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)

Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea
1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia

2.1. Eredu teorikoak erabilita, haurraren kaltearen jatorriak identifikatzea

2.2. Haurraren jokabidea aztertzea eta, haren beharren arabera, esku-hartzearen helburuak identifikatzea.

2.3. Eredu sistemikotik abiatuta, familia biologikoak kaltearen jatorrian eta horren konponketan duen papera aztertzea.

2.4. Eskura dagoen informazioa identifikatzea eta informazio gehiago behar duten alderdietan modu autonomoan sakontzea.

3. Zein da harreragileak esku-hartzea planifikatzeko eta diseinatzeko duen gaitasun-maila?

Gaitasun teknikoen bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)

Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea
1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia

3.1. Esku-hartzearen helburu zehatzak, ulergarriak, neurgarriak, doituak, progresiboak, lorgarriak eta errealistak ezartzea.

3.3. Esku-hartzea kasuaren ezaugarrien eta testuinguruaren arabera egokitzea.

3.4. Proposatutako helburuak ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazle zehatz, neurgarri eta errealistak identifikatzea.

4. Zein da harreragileak esku-hartze ekintzak eta estrategiak proposatzeko duen gaitasun-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
--	---	--

4.1. Kasuaren orientazioarekin eta lehenetsitako dimentsioekin bat datozen aldaketa-ekintzak eta estrategiak diseinatzea.

4.2. Planteatutako helburuak lantzeko estrategia praktikoa, zehatz eta errazak iradokitzea.

4.3. Haurrak ulertzeko eta egiteko moduko ekintza edo jarduerak zehatzak proposatzea, finkatutako helburuak lantzeko.

4.4. Aldaketarako tresna eta estrategia anitzak, berritzaileak eta ez-aurreikusgarriak (ahozkoak, ikusizkoak, gorputz-adierazpenekoak...) erabiltzea.

C. ZEHARKAKO GAITASUNAK

5. Zein da harreragileak haurrarekin lotura ezartzeko duen gaitasun-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
---	---	--

5.1. Konexio emozionalerako trebetasunak erabiltzea: hurbileko hizkera, emozioen areagotzea, atsedenaldiak, isiluneak eta tonu-aniztasuna.

5.2. Haurrarekiko harreman-zailtasunak aurreikustea eta eredu teorikoekin zein esku-hartze planarekin bat datozen irtenbideak planteatzea.

5.3. Familia biologikoarekiko harreman-zailtasunak aurreikustea eta hurbilketa teknikoari eustea, aurreiritziak baztertuz eta lankidetzagiroa bultzatuz.

6. Zein da harreragileak gatazkak konpontzeko duen gaitasun-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
---	---	--

6.1. Laguntza eskatzea ezjakintasun-, konplexutasun- edo premia-egoeren aurrean.

6.2. Gatazka-egoerak eta horiek norberarengan zein besteengan izan dezaketen eragina aurreikustea.

6.3. Gatazka-egoerak kudeatzeko konponbide errealistak, eraginkorrak eta egokiak proposatzea, eredu teorikoetan oinarrituta.

7. Zein da harreragileak presioaren eta frustrazioaren aurrean duen tolerantzia-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
7.1. Emozioak kudeatzea eta adieraztea presio-, konfrontazio- edo ahultasun-egoeren aurrean.		
7.2. Zuzenketak eta orientabideak onartzea.		
8. Zein da harreragileak malgutasuna izateko eta egoeretara egokitze duen maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
8.1. Beste profesionalen, haurren edo familia biologikoaren norberarenaz bestelako ikuspuntuak esploratzea eta onartzea.		
8.2. Norberaren diskurtsoa eta esku hartzeko plana berreraikitzea, kasuari buruzko orientabide berriak ematen zaizkionean.		
8.3. Kasuan inplikaturako beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea eta taldean lan egitea.		
9. Zein da harreragileak autokontzeptuan eta autoeraginkortasunean duen gaitasun-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
9.1. Norberaren indarguneen eta zailtasun teknikoaren analisi errealista egitea.		
9.2. Esperentzia pertsonalek esku-hartzean duten interferentzia identifikatzea eta harreraren duten eragina aurreikustea..		
9.3. Norberaren zailtasunak eta mugak aurreikustea; bai eta horiek eragin ditzaketen egoerak, jatorria eta balizko irtenbideak ere.		
9.4. Haurrarekin lan egiteko laguntza teknikoa eta prestakuntza-beharrak identifikatzea.		
9.5. Familia biologikoarekin lan egiteko laguntza teknikoa eta prestakuntza-beharrak identifikatzea.		
9.6. Emozioen kudeaketari dagokionez, laguntza teknikoa eta prestakuntza-beharrak identifikatzea.		
10. Zein da harreragileak komunikaziorako duen gaitasun-maila?	Gaitasun teknikoaren bilakaeraren balorazioa aldi honetan (1etik 10era)	Gaitasun tekniko hori hobetzeko beharra balioestea 1= Txikia; 2= Ertaina; 3= Handia
10.1. Esku-hartzea argudiatzea; haurren beharrak, esparru legala, eredu teknikoa eta ondorioak kontuan hartuta.		
10.2. Norberaren mugak eta egoera konplexuen aurrean sortutako zalantzak azaltzen eta planteatzen jakitea.		
10.3. Zalantzak, akatsak eta blokeoak modu asertiboan komunikatzen jakitea, jarrera defentsiboa saihestuz.		
10.4. Hizkera hurbila, sintetikoa, ulergarria eta haurrari eta kasuan esku hartzen duten gainerako eragileei egokitua erabiltzea.		

10.5. Emozioak eta pentsamenduak hitzez adieraztea eta partekatzea, haurrekin eta gainerako eragileekin esku-hartze plana kontrastatzeko.

D. GALDERA IREKIAK

11. Deskriba itzazu aldi honetan pertsona harreragilearengan aurrerapen berezia izan duten Gaitasun Teknikoak (adibideren batekin lagun badezakezu, eskertzen dizugu)

12. Deskriba itzazu, zure ustez, familia espezializatuak datorren urtean zehar bere ahaleginean lehenetsi beharko lituzkeen Gaitasun Teknikoak (adierazi hiru, mesedez, eta adibideren batekin lagun badezakezu, eskertzen dizugu)

E. HARRERARI BURUZKO GOGOBBETETZEA

13. Oro har, harreragilearen gogobetetze-maila nolakoa dela uste duzu?

0 = Batere ez 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 = Guztiz
satisfecho/a gogobeteta

14. Oro har, harrerako haurraren/pertsonaren gogobetetze-maila nolakoa dela uste duzu harrerari dagokionez?

0 = Batere ez 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 = Guztiz
satisfecho/a gogobeteta

15. Oro har, zein da zure gogobetetze-maila harrera honen bilakaerarekiko eta/edo garapenarekiko?

0 = Batere ez 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 = Guztiz
satisfecho/a gogobeteta

16. Beste alderdiren bat gehitu nahi baduzu, jarraian idatz dezakezu:

Eskerrik asko zure lankidetzagatik.